

## ORIXEK OIARZABALI

*Orixek azken-urteetan Oiarzabal jaunari bialitako gutunak, eskutitzak.*

Ez, ez. Ameriketara bidea artu izan duten euskaldunak ez dute beti beren erria utzi eta urrun artara jo, emen aspertu diralako edo etsimena artu izan dutelako. Ez dute guztiak aruntz iges egin dirubide errezagoaren pozez, andik indiano aberats egiñik etxera itzultzeko ametssez. Ez dira guztiak beren boronidate edo apeta utsez atzerri urrun artaratu.

Asko, egia esan, alabearrak, ezinbestekak, bizibearrak eraman ditu. Baiña beste asko giza-ekaitz gogorren batek bearturik joan dira eta beren gogoaz bestera, Euskalerrria biotzetan barna sarturik zeramatemala.

Onelakoak ez dute bere jaioterria ukatu, ez aaztu, ezta beren euskalduntasuna ere. Onelakoak beti esan zezaketen: Nik, noan lekura, nerekin daramat euskera, nerekin Euskalerrria eta euskalduntasuna. Ni non, an da nere erria. Ori gertatu da, batez ere, azkenengo urteotan. Ez det esango leenagoko aldietan ezer berdintsurik gertatu ez zanik. Iparragirrek eta Otañok ezetz esango digute. Baiña azken urteotan nork ez du aitortuko ori askoz geigori gertatu zaiela, iñozko geien agertu dela?

Izenak mordoka datozkigu gogora: Lontzi Ormaetxea, Toribio Etxeberria, Jakakortajarena, B. Larrakoetxea, B. Ametzaga, Irazusta, Eizagirre, Atutxa (Eltzegor), J. R. Zubillaga, S. Mitxelena, J. M. Mokoroa. Guztiok erbesteko ogia jaten zuten urteetan lan izugarri ede-

# Garage ETXEITA

SOLORAKO TA BASORAKO MAKIÑA BANATZAILLEA

**Baserritarrak:** Onako makiñarik bear ba'dozue,  
merke ta onak etxe onetan aurkituko dozuez.

Urrut. 73 04 64 - 73 05 38

AMOREBIETA - BIZKAIA

**GUK EUSKERAZ...**

**ZUK**

**ZERGATIK EZ?**

# ARGAZKARI

Langela. — Barriketak. — Argazki-aldaketak. —  
Ezkontzak. — Argazki-zaleentzako lanak. —  
Argazki-tresnak eta gaiñerakoak salgai.

San Miguel kalean, 18  
Urrut.: 73 04 11

AMOREBIETA - BIZKAIA

rra egiñak dira euskal-literaturan. Erbesteratutako oien euskal-lanak ez ote du gure literaturan aipamen berezia merezi? Euskal-erri barruan bertan euskal-idazleen otsa ixildu zanean eta gure ortzeko izarra itzaldu, idazleok, zeuden lekuan, batez ere Amerika erdiko eta bekoan, beren otsez bazterrak inarrosi eta izar berri bat piztu zuten. Emen ixillik gelditutako aldizkarien orde ere, an atzerri artan berriak sortu zituzten: erdera-euskerazkoak asko, baiña euskera utsezkoa ere bai bat.

Ain zuzen, berariz utzi det aipatu gabe euskera utsezko aldizkari ori atera eta zabaltzen geien saiatu zan laukotea: Zaitegi, Orixe, Oiarzabal, Ibiñagabeitia. FUZKO-GOGOIA, aldizkariaren izena. Olako aldizkari bati ateratzen lagundu eta bizirik eusten etxean bertan ain zail gertatzen bada, atzerrian ori egiteko izango zituzten zailtasunak eta eragozpenak ez ditugu errez asmatuko. Gizon gogobero aiek, idazle adoretzu aiek, ez zituen ezerk ere atzeratu. Eta orretarako artu zituzten nekeen berri Jainkoak daki.

Laukote ontako gizonak, laurak, gaur galduak ditugu, illak dira. Azkenengo illa, ain zuzen, guztien sustatzaile izana, Zaitegi jauna. Izerdia, izerdiaren irabazia, ain zuzen, dirua, dana utzi zuen ekintza onetan, sariaren itxaropenik gabe, esker on andirik ikusi gabe, dana euskeraren eta Euskal-erriaren maitez. Zaitegi onen eta beronen inguruko lanak ez du illunpean gelditzerik merezi.

Illunpe au zerbait urratzeko, gai ontan argitasuntxoia egiten laguntzeko, KARMEL onen errietara ekarri nai ditut karta batzuk, gutun batzuk, Orixe Oiarzabal jaunari urte aietan bialiak.

Laukotean, aipatu dan laukotean, bikote zaarrena eta kutunena egiten dute Orixe eta Oiarzabal apaizak. Adiskide miñak ziran aspalditik, Comillas-ko urteetatik asita gutxinez. Gero Bilbon alkarren lagun jarraitu zuten. Azken urteetan ere alkar-lanean jardunak dira Euskal-gramatika bat sortzen (O. eta O.), Orixe il ondoren Donostian argitara emana (1963).

Oiarzabal jauna Begoñan il zan 1966gn. urtean eta il aurretik adiskide bati utzi zizkion emen irakurriko diran Orixeren eskutitzak. Idazle onen ezagutzarik askok ez izatea gerta diteken ezkerro, jakin beza irakurleak euskeraz idatzi dan Jesukristoren Bizitzarik sakon eta luzeena apaiz onek idatzia dala, Aita Villasantek aipamenik egin ez badio ere. Eta ez du, euskeraz idatzirik, liburu bakarra.

Orixeren eskutizetan, ordea, ez zaigu bakarrik idazle bion arteko adiskidetasuna agerriko, bai beste gauza jakingarri asko ere. Emen ikusiko degu, leenbizi, olerkariaren idaz-lan askoren sorlekua: Kiton arrebarekin, Bolibiako zabaldiak aren gogoan utzitako aztarna, eta abar. Emen argituko zaizkigu urte aietako ainbat xeetasun: nola Peru utzita Guatemala eta Salvador aldera joan zan, Zaitegi jaunari EUZKO-GOGOIA ateratzen laguntzeko, nola egin zan irakasle, etxalde andi bateko beizain. Emen ikusiko ditugu bat edo besteren aurka izan zituen borrokak, eta ez lumazkoak bakarrik, bein indiar baten eskuetan illik gelditzeko arriskutik irtetzeko besoen indarretara ere jo bear izan baitzuen. Emen ikusiko degu nola zijoazten eskuartean zerabiltzan idaz-lan asko eta asko: Salmoak, Agustin donearen Aitorkizunak, eliz-otoitzetako imnoak, egiten ari zan lan nagusia (Argi-erri?), Jainkoaren Billa, Euskaldunak poemak izandako kritikak, Olabide-ren Biblia zala-ta, jesuitekin erabillitako auzia, eta abar.

Idazle baten lana aztertu eta neurtzeko, aren bizitzako goraberak jakitea lagungarri zaigu. Orixe olerkari bezela, idazle bezela eta gizon bezela ezagutzeko, ez zaigu gaizki etorriko karta aukerakusten dituguten aren alderdia. Bide batez, eta tartean tartean, EZKO-GOGOIA-ren inguruan euskal-idazle askok atzerrian euskeraren saillean zeramaten ekintzak argi berririk artuko du. Ala ustez ekartzen ditugu eskutizok KARMEL onen orrietara.

*Quitotik 1950'gngo Garagarrilaren 9'gn.*

*Oiartzabal'dar Martin Jaunari. Rosariora.*

*Adiskide aundi: Onezkero ba dut nagiak ateratzeko edo nere berri emateko garaia. Zu or zaituket, noski. Gaur amabost iritxi nintzan onara, eta artean itz-aspertu ederrik egin dugu anai-arrebok. Emendik aurrera ez du baimenik nerekin jarduteko, astean bein baizik. Emen luzaroago egotea alperrik da.*

*Ez ote dakizu gaurgero, Guatemala'ra noala Zaitegi jaunarengana? Ni joaten ba nakio, ez omen du poto egin-bildurrik bere Errebistarekin. Agindu diot, bada, eta arako sarreraren begira nago. Datorren astean antolatatu ba nendi, ara noake egaz. Ikusi al duzu EZKO-GOGOIA dalako ori? Ba ditu lankideak, eta onak, jesuitak barne dirala. Ez dakit noiz itzuliko naizan Europa alde artara.*

*Bitartean nere notak eta liburu-gaiak an egon bearco dute etzanik, Ziburu'n, Orixe'n, Donosti'n. S. Agustin ere bai. Oraindio gazte nagola iduri zait, eta gero ere ba dukedala asti lan aiek biribiltzeko.*

*Noiz arte zaude or? Aldi bateko bai? Europan baño obeki, bearbada.*

*Ni baztarrak ikusiz etorri naiz legorrez Arekipa'raño. Bolivia'ko gainordoki aipatu ori, arrigarria da. Gero Bolivia'ko ta Peru'ko mugan, Titikaka aintzira: ontziz igaro genun. Arekipa'tik Lima'ra, Guaiakil'a ta Kito'ra, ega-ontziz etorri nintzan aberatsak bezala. Buenos Aires'tik Ecuador'eko mugaraño toki ederrak dira. Ecuador'eko mugan asten dira, ain zuzen mendi apain eta basoak. Quito iri au erri-koskor polita da, karridak magal eta sabal ditula. Otzik ez, berorik ez, «betiko udalena» esaten baitiote. Lau aroenik ere ez, eta egun argia seiretatik seiretara. Toki zoragarria bizi izateko. Guatemala ere olatsu omen da. Ango Europako negueri iges egin diegu. Baztar aue-tan bertakotu ezkeru, gero lanak angoetan oitzen!*

*Goraintzi asko senar-emazteari ta illoberi.*

*Memento.*

NIKOLA

*Guregana zuzenbidea:*

6 A. Avenida Norte, n.º 11  
GUATEMALA, C. A.

---

GURE OARRA: *r* izkia 'kin idazten du. Inprentako bearrez bi *rr* ipini ditugu.

*Guatemala'tik 1950'gngo Gabonilaren 10'gn.*

*Adiskide aundi: lotsarik ez dudala esan bear zenidan. Len nagi ta orain nagiago. Zureak jaso genitun. S. Martin egunez ere oroitu nintzan. Egun batzutaz lenago ere bai karta egiteko, baño ez-gurari ederretsi nion. Izan ere ainbesteraño zoraxten nau Aldizkari onek! Irarkola dugu ezin-askatuzko korapilloa. Au genun asmo: urtearen azkenerako atzeraldia berdintzea iru zenbaki bikoitz atereaz. Itza ema-*

ten prantsesak baño areago dira emen, eta itza jaten ez diteke auek añañakorik. Esan diot Zaitegiri multikopistaz argitaratu bear genukela illean illekoa. Azkenean ori egin bearko. Bera lanex leporaño beteta dago, «Instituto Americas» orrekin eta nik ezin dezaket zotzik egin arantz-onantza. Bizkor asi giñan, baña «arrancada de caballo andaluz, parada de burro manchego». Irarkola'ra kilometro osoa daukagu: yoan-  
-etorri bi. Egunean lau bider egiten ditut oñez zenbait aldiz, bi aldiz gutxienik, iru aldiz askotan. «Bus»ez asi giñan, baña diruz gaizki xamar gabiltza iru illebeta auetan. Gizajoak ez du kemenik ukatzeko, eta eman dun dirua etzaio berriz etxeratzen. España batek (igesegiña ura ere, gu bezala) txarkeri aundi bat egin dio. Irten-bide polita daukagu. Ni Salvador'a yoan ba nendi (an egotea) argitara-gaiak poliki poliki kopiatu nezazke, ta emen multikopiaz atera ditezke. An sendi bat dugu oso adiskidea. Ara eraman nai naute, beraien landaetxe batera (Itsas-begi edo Miramar). Bakartasun artan asi ninteke nere lan andia egiten.

Ez dago gaixotegi txarra zuen etxe ori! Gaitza zer dan nik dakit ederki ainbeste ikusirik nagon ezkerok; baña osasuna ere bai, batez ere Amerika ontan. Asi Bahía Blanca'tik eta onaraño oso ederki ibili naiz. Buenos Aires'en bertakoek baño lo obeki egiten nun, beroa bero. Goi-miñik ere ez dut ezagutu Bolivia'n eta Quito'n. Arrebari, goi-miña egiten zaio noizean bein. Bestela ederki dago osasunex. Berrogei egunex bakarrik itzegiten utzi ziguten. Itz-aspertu ederrak egin genitun! Or Miren Itziar bizkorrena, beraz. Gorria ikusia da gaixoa Donibane aldi artan!

Labaien'ek esan didanez, Maritxu Barriola'k ni ara joatea nai omen du, Misal'a bizkaieraz ateratzeko. Atsegin dago ara yoaten, batez ere guda piztu ba'ledi! Ibagutxik naiz Manterolak egin dezakete-la esan diot.

Zuk bial iguzu zerbait argitaratzeko. Iketaz baldin bada, nik ere egiteko daukat. Biok elkar artuko dugula iduri zait.

Poemaz iritxiak asi dira. Ibinagak eta Zaitegik bakarra dala diote eguzkiaren azpian, eta epopeiarik obenari ere kentzen diola zenbait gauzetan. Beste aldetik Monzon'ek au esan zidan: «el poema es hermoso pero le falta una cosa: le falta sencillamente poesía» (Itzez) Laffitek usttu du ederki beazuna. Bere burua ederki kaxkartzen du; baita apaiz-yantzia ere. Manque d'unité organique, de chaleur... il n'aime pas la vie, contempteur du monde... aigri. ect., ect. Nere

gañetik jartzen ditu Txomin Agirre ta Lhande, bañan azkenean... denak baño geiagoa naizela dio. Bearren bearrenean uts egin omen dut. C'est peu de chose. Fagoaga'k oso asarre daudela esan dit orko nere adiskide guziak gizon kaxkar orren aurka. Nik ez dut batere lorik galdu, Jaunari esker.

«*Humani Generis*» irakurri al duzu? Arrazoi ematen dit gauza guzietan Mr. l'Abbé Lorre'kiko auzi artan. Ederki jotzen ditu sasi-jakintsu oiek!

*Bizkor bizkor egin zaitexte guziok.*

*Memento.*

NIKOLA

---

GURE OARRA: Emen aipatu duen Bizkaierazko Misala, bizkaieratu Ibargutxi apaizak egin zuen. Ez zan argitaratu.

*San Salvador'tik 18-XII-50.*

*Adiskide aundi: Eguberri ta Urteberri on, zuri ta etxeko guziori, osasun obearekin. Jainkoak ala nai dezala.*

*Il onen 12'garrenean iritxi nintzan onara, Erregenak igaro arte. Emen narabilte arontz-onontza baxtarrak erakutsiz, eta ez daukat idazteko gogo aundirik. Txolarte bat bederen artu bear detala bi lerro egiteko, ta ez dira asko geiago izango.*

*Or baño beroago egiten du emen; bañan ez or bezain bero itsaskorra. Gauzez prexkatzen du poliki, ta lo ederki egin diteke.*

*Nerea jaso dukuzu, berriki xamar egiña.*

*Agortu zait lapikoa.*

*Eguberri on, Urteberri on.*

*Memento.*

NIKOLA

# Banco del Norte

**E U S K A L D U N E N  
Z E R B I T Z U R A K O**

2 de Mayo, 18

Teléfono 70 17 00

**E I B A R**



Zaragoza'tik 28-II-51.

*Adiskide aundi: «Onezkero gure D. Martiñek bialduko zidak lan saillen bat beltza euskal-aditzaren iketarengaz» ari nintzan nere artean, eta... «ezertarako gurarik ez». Jainkoagatik! «Primun vivere deinde philosophari».*

*Beraz, etxeokak ere ainbestean, txikiena ezik. Nik osasuna appparta Jainkoari esker. Lanaldi polita egiñik nago onara etorri ezker, bai Zaitegi'rentzat, bai neronentzat. Ipernua, Garbitegia ta bataiagabeen Aurtegia bukatuak ditut. Bañan orain takatx egin bear. Arean, bear eta bear ari zaizkit, Ikastetxe Nagusian sail bat artzeko, latiña naiz pilosopia naiz Literatura. Lengo irakasle guziak aizatu dituzte ikasle tzar oiek. Urte bete opor egin dute. Orain auteskundeetan ari dira, Nagusi ta abar autatzeko. Irakasle batzuk itzuli nai omen. Ni berriz ezin ukatu nakie ain kutun naukaten jende aueri. Ez dakit azkenean zer emango didaten. Latiña nuke gogokoen, gertuago bainaiz ortarako. Emengo irakasleak «edozetako neskame» bezala omen dira: «des bonnes à tout faire». Oso atzera daude buru-lanetan.*

*«Migración» ori aspergarri dala? Ondo ezagutzen nau etxe onek. Illabeteko dantza erabili nun (terdi ere bai ongi beteak) egunik utsegin gabe joanez, eta zenbait aldiz egunean bi aldiz. Bearrik neukan urbil Avellaneda'tik. Emengo agiriak bereala antolatu dizkit Aita Egi-barrek. Sei illabeteko lenbizi; gero... urtebeteko, edo ikusi egin bear emengo erria artzen komeni zaidan.*

*Biar asten zaigu urtean dan illabeterik beroena. Ez diot bildurrik, Jainkoari esker. Beti bero egin arren, orainarte, beintzat, ez dut sumatu gure aldi aietako sapa edo sargori astun ura. Emen burua beti garbi lanerako.*

*Fagoaga Isidor ez baña Bladi (Blas) diteke urgazle autatua. Zu bezalako apaiz gizon puska da, Erratzua'arra, Iruñako Apaizgai-etxean euskera irakasle.*

*Misal'arengaz berri onak ematen ditidate irakurri duten bakarrak. Argitara baño len Montzon'ek irauli zidan, eta, berak otoitzak aurzarotik erderaz egin arren, euskerazkoa barrenago sartzen zitzaiola esan zidan. Orobat Labaien'en emazteak: «Por fin hemos visto el Misal, preciosamente encuadernado en Valencia. Merece Vd. un gran premio, pues está perfecto y claro. Lo pienso usar, dado lo bien que*

*entiendo, y que me dice mucho más que el español que tengo. Ha puesto Vd. mucho calor...»*

*Maritxu Barriolari au erantzun diot; bizkaieraz Ibargutxi'k ipiñi-ko dula ederki, naiz Manterola'k. Nik ez daukadala betarik.*

*Mila goraintzi Agirrezabal jaunari. Eta Mendiola jaunari ere bai, oraindik or ba'da.*

*Memento.*

NIKOLA

*Finca Miramar. Zaragoza. El Salvador. C. A. 8-I-51.*

*Oiartzabal Martin Jaunari. Errosariora.*

*Adiskide aundi: Lengo ilaren 12'garrenean iritxi nintzan onara opor-aldirako ta oraindik emen arkitzen naiz. Zaitegi jauna etxera itzuli da emen geldi naitekela esanik. Emen bizi izateko agiriak antolatzen ari naiz. Emen nagola pake obean egingo dut nere ametsetako aspal-diko lana; E. GOGO'A'ri emendik berdin lagunduz.*

*Zuk iketaz egin duzuna Guatemala'ra bialdu ez ba-duzu, bial idazu onara. Nik zerbait eratziki dezaioket zureari, edota beste lan berri bat egin, nai duzun bezala. Elkar artuko dugula iduri zait. Len biok egindako lana, ez dakit Ziburu'n ala Bidaurrai'n utzia dutan. Zuk zerekin baldin ba duzu, ta artaz idatzi nai, ederki letorke E.G.'rako.*

*Toki zoragarria au lanerako. Bakartasuna, ixiltasuna, pakea. Landetxe aun Muysbondtarrena da. Senarra Flaming'darra, emaztea emengo. Oso jende onak dira: Zaitegi'ren lenagoko adiskideak. Landa onetan 300 bat langille dituzte. Uztarik beiñenak akeita eta azukrea. Beitalde ederra. Mota guzietako igaliak. Emengo zugatz auek eman eta eman ari omen dira urte osoan. Ez dira amabost egun pikondo bat muskildu zutela; baña beste amabost orduko emango ditu jateko modukoak.*

*San Salvador'tik ordu erdibatera nago (autoz) eta itsas-egitik amar minutura. Nagusia egunero dator seme batekin. Azukre-ola dute, ta uzta bukatu arte egunero etorriko dira. Gero ere aski maiz. Beste*

landa bat dute emendik urruti gabe, 75 langillerekin. Igandero ara joaten gera eguna igarotzera.

Erri koxkor onek Zaragoza du izena. Jendea erdi-beltx oietakoa: oso goxoa. Emengo beroa, itzalean eramankorra da. Gauetz prexkatzen du orainaldian poliki. Lo ederra egin diteke.

Eta or? Betiko bero astuna? Zertan da gaixo-etxe ori? Zu obeki al zaude? Erretzeari utzi al diozu?

Eguzkia jeixten asi da, ta txango bat egitera noa.

Gorantzi etxean.

Memento.

NIKOLA

Zaragoza'tik, 22-V-51.

Adiskide aundi: Bidari ontan bertan bialduko diot Zaitegi iaunari makiñaz ipinirik zure lantxo. Osotara zurekin nago ta Ostolaza'rekin. Bi gauzatxo eratxiko ditiot lan orri: amaseigarren mendean Ioannes Leizarraga'k hire izena, hire eresuma idatzi zula, zure izena, zure eresuma orde; eta Azpeiti ta inguruetan ba-natxik, etorri natxik (naizak'en antzera) esan oi dala, ta beste nonbait gizak, gatxik edo gaituk orde. Zure izena oso osorik eman dut. Agertu nai ez ba'duzu, garaiez zaude esateko.

Emen negua asi, bañan aski bero oraindik. Beti ere, lanik ez du galeraxten. Aurtengo Garizuman olerki sail bat egin dut, Zaitegi iaunak zirikatu naulako. Ogeitamar ba'ditut, eta liburutxoa atera nai luke oiekin. Oiek omen dira bertsoak.

Uriburura ioaten naizenean, A. Egibar'i zuketz goraintzi emango. Ez dakit kalearen izena ta zenbakarrena, bañan aski duzu «Colegio Externado de San José» ipintea. Bestela «Seminario de San José de la Montaña». Emendik bialduko diote, Jesulagunak baitaude. Baña «Colegio Externado de San José» izen aundikoa da.

Egiozu euskeraz, Nagusiak ez du geldiaraziko zure gutuna, oso gure aietakoa ez ba da ere. Azpeitiarra da, Aranguren. Nik Xabier'en ezagutu nuna. Orain gurekin atsegiñago agertzen dira, bildurrez edo.

A. *Estefania zanaren paperetaz aspaldi galdegin zuten, gu Prantzian giñala, bañan autsak eta pipiak ianak zirala edo olako zerbait asmatu zuten. Ez al da lotsagarri?*

*Bialdu, bialdu esaten dituzun lan oietatik.*

*Onezkero Errosarion zaitugu. Zer diote Gaixo-etxe ortan? Goraintzi guzieri. Ni orain Poema gazteleraz ipintzen ari naiz, Zaitegi'k esanik. Ba omen du adiskide bat Ipar-Amerikarra ta ari emango omen dio ingelesera biurtzeko, balio baldin ba' du. Ez letorke gaizki.*

*Gaurko egunerako, guzitarako oporra iragarria zuten gurean. Zer gertatuko ote da? Gaixoak barrenean daudenak! Iruñan gertatua gogorra omen. Zabaltzen baldin ba da, lanak izango dira. Emen bildurrez daude.*

*Patxik beti bezala komunisteri egozten die. Ez al gindun isastu marxo-separatista guziok? Nondik sortu zaizkio? Berak egin al ditu? Komunisten aurka bialdu omen zun Iainkoak. Ba-dauka eskuak bete lan. Oinbeste odolena ondolik ori atera du. Ta etorriko dana.*

*Ez daukat besterik esateko. Goraintzi berriz ere etxekeeri.*

*Memento.*

NIKOLA

*Zaragoza'tik, 14-VII-51.*

*Adiskide aundi: Onezkero Errosarion ote zaitugu? Ez lizake arritzeko. Ni ere or ibili nintzan ene agirien atzetik bi illabete urbil. Buenos Aires'en baldin ba'zaitugu, gaur bertan egiten diot Fagoagari Zaitegi'ri nonbait ez nion garbi esan O- ta O ipintzeko, bañan esan nion onara etorri zan batean. Gaurgero tiraturik ez ba'lego, aldaraziko zula agindu zidan.*

*Orain auzitxo bat: Amezaga'tar Bingen ikusia dukezu Montevideo'n. Len karta bat egin zidan, Ele eder saileko irakasle Guraso (Dekano de la Facultad de Letras) dalakoak agindurik, nere poema euskeraratzen asi zala. Zenbait zailgune billatzen zitula ta ia lagunduko nion. Itzulia neukala erantzun nion, eta copia bat bialdu nezaio-kela.*

Orain beste bat egin dit aun esanez: «Como la Universidad me dio el encargo de hacer la traducción, yo la haré como mejor Dios me dé a entender y con su ayuda. Nada se perderá con ello. Yo cumpliré mi encargo, a lo cual no ha de obstar el que para entonces o antes tenga usted lista su versión. Qué le parece?»

Zer erantzun dezaioket? Zertako bi itzulpen? Ez al da ori elkarren buruzki iardutea? Zuk erantzun arte ez diot bialduko copiarik. Eta, okerrera asi ezkerro, nere baimenik gabe itzuli al dezake? Unibersidade orrek ez al luke onartuko egillearen beraren itzulpena?

Zaitegi iauna Dagonillean etorriko zaigu oporraldira eta orduan eramango du, Ipar-Amerikar bati erakusteko. Gondra'k ingelesez oso ondo omen daki, eta onek lagundu omen dezaioke ingeles bati itzul-kizun ortan. «Primero Dios», emen esan oi duten bezala.

«Bear duzun atsedena artu» esaten zenidan. Nai ta nai ez, orain-  
txe: oporraldi dut, lan geitxo egin eta. Berela berrituko naiz, ustez, Iainkoa lagun. Nere notak ere bidean dira, ta aiek iritxi arte ez dezaket lan gogorragorik asi.

Zubizarreta Azkoitiarra (Chucherías) Guatemala'ra etortzekotan dabila. Neri egin zidan eta Zaitegi'ren bidez anteak egiñak ditugu, bai Gobernuaren eta bai Gotzai baten aurrean. Onek (Jalapan Gotzai) eskabidea egin dezala erantzun du, eta onezkero ari da.

Etzaitela ikaratu nere osasunaz. Etxeko andereak sendagilea be rela ekarri zidan, zorabio pixka biotzetik ote zen, eta ez-bide. Au esan zidan itzez: «Tiene usted un organismo de cuarenta años; con esa pulsación y ese corazón, puede usted vivir perfectamente cien años». Dios primero, esan bearko.

Urrena arte, ta goraintxi etxekeeri.

Memento.

NIKOLA

Zaragoza Txikitik, 4-X-51.

Adiskide aundi: «Zer ari ote da gure D. Martin neri erantzun gabe?» Ontan ari nintzala, karta izugarri bat, etxean ez dakit zenbat



**ardatza ta aria bear bezala emateko  
tresnarik onenak eta gogorrenak  
nai izan ezkeru... jo**

**«A R D A T Z» LANTEGIRA**

**Avda. 26 de abril**

**ERMUA - BIZKAIA**

zauritu zeundetela trenean gertatuarekin. Egite egunari begiratzen diot, Iorraillaren zazpigarrena. Gibelean, berriz, beste egun bat: Orrillaren 27'garrena. Zaragoza aundian eta Zarautz'en barna ibili dala-ta bost illabete neregana orduko. Orain berriz beste karta bat Uztaillaren 24'garrenean egiña, bidean bi illabete egiñez.

*Ubinam gentium sumus? Munduaren azken-mugan, noski. Or Buenos Aires'en ez dakite batere Geografi'rik. Avellaneda'ko gutun-etxean au galdegin nien: «Un timbre aéreo para el Ecuador». «El Ecuador... Y dónde cae eso?» berriro ere. Etzaitte arritu gertatu danarekin.*

*Onezkero anaia sendatua ditekete bere gripe ortatik. Besteak ala-ola zautela. Gaixo-etxe ori noiz biurtuko ote da Osasun-etxe?*

*Euskal-izkera Zaitegi'k ba'du Guatemalan. Ez bialdu. Nik ez daukat batere gogorik lan ortan asteko. Mokoroa'ren aditza laburki ipiñita bialtzea, bai. Burutik aul xamar nago oraindik. Más vale burro vivo que Doctor muerto egin bearko.*

*Amezaga'k ez du geiago txintakorik atera. Nik ez diot bialdu kopiarik, eta berak ere ez dit bialdu lenengo zatiaren itzulpena. Bi kopia Zaitegi'k eramán zitidan Cincinnati'ko Unibersidadeko Irakasle batentzat. Izketan asia da arekin. Etxe orrek urrurik atera omen lezazke bai euskera ta bereiz erdera. Irabazia erdi bana eskatuko omen dio. Ez litzake makala.*

*Egunik geiena beiekin igarotzen dut. Bi ietzialditan eta iriñak ematean eta abar, ikullu aldean nabilla. Ni lardaskan asi nintzan ezkerro, iru alako esne ematen digute.*

*ARGI-ERRI aurrera deramat. Uste baño obeki atera zait edo ateratzen ari zait. Ortako ba-daukat indarrik aski. Iainkoa lagun. Nere nota guztiak ez ba'da ere, geienak bialdu zizkidaten. Lenbizi euskeraz, baño gero erderaz ere atera nai nuke «El tratado con Dios», Markiegi ta Guridi apaiz ziranak ederki legokela ta gauza bearra zitekela esan baitzidaten. Ordurako euskeraz egiña neukan. Orain asko aldatu dut. Ez dira alperrik ioan oinbeste urte. Sekulan gauzarik argi ta garbi ipiñi ba'dut, au iduri zait ipiñi dutala. Al ditekete einen; berenez gauza zaillak baitira.*

*Zubizarreta'ren berririk ez dut aspaldi. Bi karta egin nitien eskabide egin zezaiola Jalapa'ko Gotzaiari, eta ez dut erantzunik.*

Ikusiko dut gauzak neretzat nola doazan; baiña emendik urte pare batera urbildu nai nuke, Belloc'a bederen. Ori esan nion lengoan etxeoandreari ta «Lo vamos a sentir mucho» erantzun zidan «Prime-ro Dios» emen esan oi dan bezala.

Goraintzi etxeoeri ta

Memento.

NIKOLA

Zaragoza'tik, 5-XI-51.

Oiarzabal'dar Martin iaunari. Errosariora.

Adiskide aundi: S. Martin eguna ba-datorrela aurten ere. Betor-kizu urte askoz. Egun ortan bereiziki egingo diot otoitz santu aundi orri beraren beteko egin zaitzan.

Emen berriagorik ez. Bidarra'i'n esan oi danex. Osasunez obeki noala, buruarenez, alegia. Lanean baratxe baratxe ari naiz. Nere lan aundia koxka ta koxka laister bukatzeko eran daukat. Gaiñerako baz-terlan oietan geldi aldia. Zaitegi iaunarekin lengotik ari naiz. Alare, nere izena geixko ageri da oraindik E. G.'n. Asi zaizkio Europa alde artatik lan ederrak etortzen. Gure aldizkariari esker on ematen diote aietan; baizik ere, garestitxo zaiela. Onezkero ez al dugu porrot egingo.

Ibinagabeitia'r Andima, Zaitegiren lagun ona, gaurgero Paristik irteten da Guatemala'ra. Laguntza ederra duke, eskolarako ere.

Fagoaga'ren berririk ez. Mexikura igaro ba'ledi, emendik bide egingo zula (ta emen takatx) agindu zidan.

Eta zuek? Gaixo-etxe ala osasun-etxe? Bietatik apurra, ez da ala? Atzerri au bi aldiz atzerri zaizue. Ezazute osasun. Iainkoari ala nai dakiola.

Goraintzi deneri, batez ere txikienari. S. Martin eguna ondo iga-ro dezazutela.

Memento.

NIKOLA



Zaragoza'tik, 7-XI-52.

Oiarzabal'dar Martin iaunari. Errosariora.

Adiskide aundi: berandutxo oroitu naiz S. Martin berela dator-kigula. Gaur illak zazpi, au emendik ateratzeko zortzi; bidean... zortzialdirako bederen iritxiko al zaizu. Uruguay'ra tiñel tiñel iristen dira, baña nik ez dakit zer dun Río de la Plata orrek. Dana dala egun ortan etzaitut beñipein azturik utziko Jainkoaren aurrean.

Onezkero zu osasunez ederki, lanak... patxaran. Emen nagozu zuk zer bialdu begira. Ni ere zure neurrian asi naiz lanean. Oraindik ez ditut bukatu David'en Eresiak, aurrera ba'doaz ere. Azkeneko amarrak palta. Eta gero 17 «Cantica Breviarii Romani». Oiek aurten bukatuko al ditut, baldin bait ere! Datorren urtean Iainkoak nai ba'du S. Agustín bukatu bearke. Emen beitegian eta lore-baratzan eta aurrekin, eguna errez igarotzen zait. Osasunez oso ederki, Eta zuek? Onezkero itzulpurdika ta ikotika gure txal auek bezala, zarrenetik gazteenera. Ala bedi. Negua —emengo negua— ioan zan, euri aundiak utzirik. Aurten bi metrotik gora. Udara poliki asi du —berotxo arren— ego-aize zakar batzuekin aurrenetik, eta orain aizerik gabe. Nai dunak lana egin dezake, sargoririk gabe, ta lo egiteko giro dago. Or baño askoz obeki, nolanai ere.

Gure E. GOGOA gibelatzen asi da berriz ere langille urriz. Ez al da, beintzat atertuko. Oso ongi artzen dute gutarrak.

Besterik ezer ez. Egun ona igaro dezazula etxekoekin, eta urrena arte.

Memento.

NIKOLA

Finca Miramar. Zaragoza'tik, 6-I-53.

Oiarzabal'dar Martin iaunari. Errosariora.

Adiskide aundi: Agiri danex nereea ez duzu iaso S. Martiñetan egin

nizuna; nik ere ez zure biak; bai irugarrena. Makiñaz ipintzen asia nintzen neronena E. G.'rako, zenbait aldakuntzarekin, eta zurearen begira nengon, biak elkartzeko. Bidean ditezke bi oiek eta ez al dira galduko. Emendik orrerako ta ortik onerako bidari oiek, oso oker dabil-tza beti. Uruguay'raño oso ederki, berriz.

Zaitegi iauna emen genuen lengo egunetan eta esan zidan zerbait bialdu zenidala. Etzaitela asi berriro kopiatzen. Noizbait iritxiko dira. Españi'ko Zaragoza'ra ioan ba'dira ere.

Emen ederki osasunez; orkorik ez didazu esaten; beraz, gaixo-etxe ori osasun-etxe biurtu diteke. Ala biza. Berandutxo ba'da ere urte au ez deila txarrago atera ioan dana baiño, eta ohea, Iainkoak nai ba'du.

Esan nizun lengoan S. Agustin'en Confessiones itzultzea bukatu nai nukela aurtan.

Aita Egibar oso gaizki gibeletik. Ezin-iana ta lo-galdua. Ez dakit oraingotik aterako ote dan edota nola geldituko dan.

Besterik ez.

Memento.

NIKOLA

Zaragoza'tik, 3-II-53.

Adiskide aundi: Nonbait bidari oiek or okertzen dira, emen oso zuzen ez ba'dabil-tza ere. Zure bi galduak ez dira agertu oraindik. Mingarri da bigarren aldiz aldatu bear ori, baña, beneditar iatorra baitzera, berriro lan ori egiteko gai zera zu. Eguberriko eskutitzarekin batean, ikus zer zati bialdu zenidan: 116'garrenetik 152 bukatu arte.

S. Agustiñen azkeneko iru liburuen bikia bialduko dizut. Oraindik asteko nago. David'en Eresiak igorri nitien M. Barriolari Eguberriz. Oraindik bidean ditezke Guatemalako Puerto Barrios'en barna Iru bat illabete luzetzen dute paketeak emendik ara ta andik onara. Bigarren kopia Zaitegi'k du. Bereala argitara nai omen ditute Gari-koiz'tar orrek.

Aita Egibar obeki doan soiñua da. Cuba'n izan berria omen da

*emengo Presidente'ren emazteari lagun egiten. Oso bakan ioaten naiz Uriburura, ta ez dut ikusten.*

*Bero bero asi dut idazki au lerro ertsietan, baiñan agortu naiz. Bakanetan ere ba dute aski toki nere berriak.*

*Etxekoeri milla goraintzi.*

*Memento.*

NIKOLA

*Zaragoza'tik, 1953-II-15'gn.*

*Adiskide aundi: Atzo berandu iritxi ziran zure bi galduak: Azilaren 3'garrenkoa eta Gabonillaren 4'gnkoa. Oraindik ez al ziñan asiko birraldatzen! Zure osasun obeak pozten nau. Ni oso bikain, aitona gazte musugorri biurturik «El sonrosado» esaten asi zaizkit. Orain zenbait illabete esan nizun sendagilleak esan zidana: Qué bomba! (biotzarengatik), va Vd. a vivir un sin fin de años. Jainkoak nai duna. Gogora dezakezu nere betiko lur-margo gaitzezko ua. «Gana da» laphurtarrek diagotenez. Tensioa 13. Zure kilo-galtze ori duzu obenik osasunerako. Neri ez zilbota ederki serailtzen ari zait, gizen nagon arren (182 libera) Basi oiek mirarisko edo dira.*

*«Fonetika'z Altuberekin...» Zago<sup>1</sup> ixilik, gizona! Nik guzi guzia zearo euskeraz idatzirik daukat oso errex, gure Euskal-izkerako. Eras-kin bezala edo, ondarrean, beintzat, ioan bear-ko du. Bera ez da ausartzen gai ori euskeraz arrotzen. Res porrectus=oin magala, magal oiña; Torculus=zalkor, konkor; scandicus=gora-koska, gora-zurubi egiten duna; climacus=bêra-koska, bê-zurubi. Zer derizkiozu? Errege bi-deetan apalguneari (bache) magala esan oi diogu. Nere ustez, beñi-pein, batera euskeran saiatu danak errex uler dezake.*

*Asots, bai (cfr. ots, abarrots, arrabots) BN'ko itzak.*

*Patxi Korta'renak ere pozten nau. Egunero nominatim et per faciem (facietim) oroitzen naiz artaz.*

*Nola diteke zuk «Pedro Eliza ikusia da» ez entzun ukaitea? Non-bait Azpeitiko erri-izkera antzi edo ongi ikasi ez. «Ni senper ikusia*

<sup>1</sup> Bidarra'n «zago ixilik» esaten dute oraiño.

*naiz, ixtiluak ikusia naiz, gorriak ikusita nago» ta abar Euskalerrri osoan ezagun ezaguna dala derizkiot. Ego (is qui) Ecclesiam vidit sum. Dana dala zuk ikus nondik atera zaiteken.*

*Beraz laterandar iator orien artean? Gorantzi miñak A. Beobideri ta gaiñerako guzieri. «Bazkari bat egiña naiz (nago)» aien etxe ortan.*

*ARGI-ERRI oso nekez aterako da Aldizkariak darabiltzin oxtopo oien gatik. Oso atsegin zaie batez ere a las beatas. Zaitegik osorik irakurria du, ta au esan zidan: «iñork iñoiz ez du olako gauza ederrik euskeraz idatzi, ez Orixe'k ere». Laus Deo.*

*Besterik... zer? A, bai, zuk bialdu-ala nerearekin bekaldatuz makinaz aldatuko dutala. Nik ere ukitutxo batzuk egin baitizkiot, esaterako, Olabide'ren elatz ele-atz letra orde, eta abar. Ikus zer iritxi duten nerekin Krutwig'ek eta A. Villasantek. Gure 350 irakurle oriek usu oituko dira.*

*Goraintzi etxekoeri ta Augustindarrereri ta Agirrezabal'i. Larrakotxe laterandarrak Confessiones itzuliak omen. Orren berri galdegiozu A. Beobideri.*

### Memento

NIKOLA

*Zaragoza'tik, 14-V-53.*

*Adiskide aundi: Bi aldiz egin nion Zaitegi'ri zuk egin eskutzitza iaso ote zun, zure aspaldiko lantxo batzueri buruz. Egon eta egon zuri erantzuna emateko ta aren berririk ez. Oso lanpetua dagola badakit, gure etxeoandreak esanik, an baitago bi illabete auetan. Atzo etortzeko zan eta ez da ageri. Bitartean zure bigarrena. Salta'n egonak on egin dizula? Ala obe. «Pedro Eliza ikusia da» ori ez dago araupean, nere ustez ere. Askoz politago «Pedro'k Eliza ikusia du» «Ni an nindagola iakin ba'zun» (si hubo sabido) gogor egiten zait. «Ke» aldaska ez da berez bakarrez baldiñ-aldaska; geroan edo «ezkerro»koan ala gertatzen da. Guk oso gaizki esan oi dugu: «Onezkero etorriko zan». Bidarrai'n ederki: «Engoitk (gaurgero) etorria ditake», go edo ko'rekin berdintsu, diozun bezala. Ontan zurekin nago «ikusiten duke», ortan ere «ezkerkoa» ageri da. Ez da oraiñaldi garbia: «lo estará viendo» «Izan» aditzan «zitzazken» obeki (gaur iten-ena) «zitzaketan» baño.*

«Ekidin» aditzan utzagun dagon eran «zakididate» ta abar «zazkidi» eta oietaz ez nago ain ziur. Aditz laburra ikasteko obe litzake bai beste aditz bat eredu ipintea zearo, baiñan «egon», -k gabe oietakoa baita -, nin'ekin ipini bear eta ez nen'ekin (nindagon, nindagoke). Ibilli ere ez da erreza, nabil apofoni orrengatik. Zuk ikus zein aukera. «Izan» lengora ipintzea (zearo beintzat) ez derizkiot. Oarkizun labur bat obe. Ortan ez baikaude biok erara: n(a)iza zuk, niza, nik. Moko-roaren... ikusia=»el que ha visto« etzait ongi iduri; «el que tiene visto o vista» nonbait or. (Cfr. Peru Eliz ikusia da). Aren pasivo'rako «ha sido visto», bego.

Zuk bereiziko duzu sasi au.

«Euskal-izkera»etxeko andrearekin bialdua nun bereala Guatemala'ra, garbi baitzegon. Ango langilleek makinaz egiña eskatzen omen baitute atzera berarekin bial zezaiola esan nion.

Patxi Korta'renak pozten nau. Ez ala Miren Maiteren osasunak. Gazterik asi zan gaixoa neketan. Zerurako balia dedila. Goraintzi niketz. Oroituko ote da Donibane Lohitzun'en ikusi nindula?

Esana dizut, noski, Otsaillaren 8'gn. egundoko kazkarrekoa artu nula-basi-gelan erorita. Illabeteko zorabioak ukan nitun. Urrena artatik edo gripe tzar batek artu nindun. Lenbiziko bi egunetan belarrietako min aundia; irugarrenetik aurrera gorreri aundia bietatik. Zutaz oroiturik egiñalak egin ditut izardiketan, Pasio ostegunetik orain arte. Gorrerik ez, ala esateko, baiñan oztopo bat eskuiñekoan, oraintxe arte. Atzo artu nun azkeneko lurrñaldia. Lanerako gogo aundirik ez oraindik. Bestela osasunex oso ederki. Ez gera osasunaren iabe.

«Trabuco» (Confessiones) utzi ote nizun? Emen ezin arkitu latinez liburu txikian. Seminarioan Migne dute baiñan ezin ekarri. Itzulia Labaien'ek dauka Donostin. Ez dakit Trabuco ara bialdu ba'nun ere.

Milla goraintzi etxekoeri.

Memento.

NIKOLA

Maritxu Barriola'ri oso atsegin izan zaio David'en itzulpena, baiñan Gotzaitegian eragozpenak omen Eliz-baimena ukaiteko. Egundaiño! Zerurako baimena ere Patxi'ri eskatu bearko ote zaio?